



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Departamento de Participación y Centros Cívicos
Partaidetza eta Gizarte Etxeen Saila

Servicio de Participación Ciudadana
Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzua

ELKARGUNE **EUSKARA**

TXOSTEN 4/2017

EGUNA: ABENDUAK 18

ORDUA: 18:30

LEKUA: ORTUÑO ARETOA (OIHANEDER-MONTEHERMOSO)

PARTE-HARTZAILEAK:

ELKARGUNE EUSKARA	GIZONA	EMAKUMEA
HEGOALDE EUSKALTEGIA		1
UDABERRIA EUSKALTEGIA	1	
LAZARRAGA K. ELKARTEA	3	
ORHUM ZINEKLUBA	1	
AEK	1	
BETIKO GASTEIZ		1
EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA	1	
IKA	1	
BAI EUSKARARI	1	
GEU ELKARTEA	1	1
EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ	1	
IÑAKI PRUSILA- EUSKARA ZINEGOTZIA	1	
EH BILDU GASTEIZ		1
UDALA (EUSKARA ZERBITZUA)	2	
GUZTIRA: 18 PERTSONA	14	4



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

GAI-ZERRENDA

- 1- Ekainaren 20ko eta uztailaren 18ko txostenetako gaien laburpena
- 2- Euskararen ordenantzaren inguruan antolatu diren prestakuntza-saio bien laburpena.
- 3- Gasteizko Kafe Antzokia: informazioa
- 4- Vitoria-gasteiz.eus domeinuaren gaineko informazioa.
- 5- Beste

GARAPENA

1- Ekainaren 20ko eta uztailaren 18ko txostenetako gaien laburpena

Ekainaren 20ko eta uztailaren 18ko txostenak web orrialdean zintzilikatu eta emailuz bidali zaizkie Euskara Elkargunean parte hartzen duten pertsona guztiei, landutakoa jakinarazteko. Txostenak onartzen dira zuzenketarik gabe.

GEU elkartearen ordezkariak, txostenak lehenago bidaltzeko eskatu die Euskara Zerbitzuko teknikariei. Beraren ustez, epea motza izan behar da, ekarpenak egin ahal izateko.

Según Kaiet Estrada, de Orhum Zinekluba, los informes se deberían de recoger también en castellano. Desde el Servicio de Euskera se responde que el acta se recoge en la lengua que se realiza la reunión. Para mostrar su disconformidad, este participante intervendrá únicamente en castellano en el foro a partir de ahora.

Amelia, representante de Betiko Gasteiz, se queja de que no se le ha facilitado un servicio de intérprete. Desde el Servicio de Euskera se recuerda que el servicio esta a disposición de todas aquellas personas que lo soliciten siempre que se requiera con un mínimo de plazo, habiendo siendo insuficiente en esta ocasión. La asistente se queja de que se recurra a empresas privadas para prestar el servicio.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

2- Euskararen ordenantzaren inguruan antolatu diren prestakuntza-saio bien laburpena.

“Euskararen presentzia eta erabilera Gasteizen. Elkarrizketa gunea” ebaluazio txostena banatzen da parte-hartzaile guztien artean.

Euskara Elkarguneak hizkuntza politikari buruzko eztabaida bat zabaldu nahi zuen euskararen ordenantzak berritzeko prozesu bati ekin aurretik. Horretarako, Euskararen presentzia eta erabilera Gasteizen elkarrizketa gunea sortu zen.

Prozezu horrek hiru hanka behar zituen:

- a) Euskararen inguruan aritzen diren elkarteak (euskara elkargunean egon ala ez)
- b) Udalaren talde politikoak
- c) Beste arloetako gizarte eragileak: enpresak, elkarteak...

Bi saio egin dira. Lehena irekia izan da, eta euskararen inguruko bizipenak eta kezkek partekatzeke baliogarria izan da. Bigarrena, elkarguneko taldeei zuzendua, aditu zein arituek horren inguruan dituzten irizpideak eta praktikak ikusteko balio izan da.

Alex Vadillok, Euskara Zerbitzuko teknikariak, hurrengo balorazioa egin du: “Saio biak oso aberasgarriak izan dira eta pista asko eman dituzte, baina helburua ez da bete. Talde politikoek parte hartzea oso mugatua izan da eta, beste arlo batzuetako gizarte eragileek parte hartu badute ere, ez da aurreikusitako esparruetako eragile guztiek ekarpena egitea lortu.”

Banatutako txostena eta ondorioak ontzat eman ditu Elkarguneak, lanerako dokumentu gisa, zaporea gozo-gazia izan arren. Zabaldutakoa laburpen bat da, eta jakinarazi da txosten osatuagoak ere badaudela.

Euskara Zerbitzuak Parte-hartzerako Zerbitzuarekin batera beste gizarte esparruak nola inplikatu hausnartuko du. Gizarte kontseilua, beharbada, bide ona izan daiteke horretarako.

Gorkaren ustez, AEK euskaltegiko ordezkaria, ezberdindu behar da, alde batetik, Udala ordenantzan emaitza zein izango den eta, beste aldetik, hori egiteko prozedura. Emaitza, noski, garrantzitsua da, baina prozedurak ere garrantzia izan behar du gizartean isla eta



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

oihartzuna izateko. Beraren aburuz, Iñaki Prusilla, Euskara Zinegotzia, liderra izan behar da eta beste talde politiko guztiekin gogotsu lan egiteko eskatzen dio.

Iñaki Prusillak lidergoa hartzeko prest dagoela aipatzen du. Izan ere, elkarrizketa gunea egin ondoren eta ondorioak eta hausnarketak jakinda, mintzatzeko garaia heldu da. Bilerak planteatuko dira beste alderdi guztiekin horretaz hitz egiteko, eta elkargunearen ordezkariak gonbidatuko dira.

3- Gasteizko Kafe Antzokia

Kafe Antzokia eta Euskararen Etxearen inguruko lantaldeak lanean jarraitzen du. Iñaki Prusillak lantaldearen ondorioak laburbildu ditu:

- Begi onez ikusi da izaera jurikoa fundazioa izateko proposamena, erabakia oraindik hartu ez bada ere. Fundazioaren bidea esploratuko da bai Arabako Foru Aldundiarekin bai Jaurlaritzarekin bai eragile pribatuekin.

- Edukiak kontuan hartuta, Gasteizko Kafe Antzokiaren ordutegia taberna batena izango da, gaueko ordu biak edo hirurak arte.

- Lazarraga Elkartek GKE-OEErako (Gasteizko Kafe Antzokia eta Oihaneder Euskararen Etxea) egindako aurrekontua Ogasuna Sailari igorri dio zinegotziak, baina zaila dute aurrekontu hori aztertzea, eraikinaren xehetasunak eta kudeaketa erabakiaurretik.

- Lantaldea (Jarraipen Batzordea) hilean behin elkartuko da proiektuaren jarraipena egiteko, Kafe Antzokia martxan egon edo bigarren fasera arte.

Horrez gain, Prusillak Gasteizko Kafe Antzokiko kronograma azaldu du modu labur batean. Hiru fase bereizten dira:

- a) Ikerketa Arkeologikoa (3 hilabete)
- b) Proiektuaren lizitazioa (10 hilabete)
- c) Lanaren Lizitazioa (24 hilabete)

Hala ere, gobernu taldeak, ahal den heinean, epeak murrizteko konpromezua hartu du.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Lazarraga Kultur Elkarteak prozesuaren balorazioa egin du idatziz eta dokumentua bidali zaizkie parte-hartzaile guztiei. Elkargunean dokumentu horren laburpena egin da:

Lazarragak lantalde hau osatzea proposatu zuenean bi helburu garbirekin egin zuen:

-Gasteizko Kafe Antzokiaren obrak hasi aurretik udalak erabakita izatea proiektu osoaren nondik norakoak. Hau da, egitasmoak beharrezkoa duen izaera juridikoa, kudeaketa eredia eta diru-iturriak zehaztuta izatea.

-Gasteizko Udalbatza osatzen duten talde guztien ekarpenak jasotzea eta proiektuarekiko engaiamendua lortzea. ☑

Lazarragak, Prusillak azaldutakoa azpimarratzeaz gain, hurrengo ondorioak aipatzen ditu:

-Udal talde politiko gutiek jarraitzen dute GKA-OEE proiektua babesten.

-GKA noiz eta nola egingo den hurrengo hilabeteetan zehaztu behar da.

-Egitasmoaren izaera juridikoa eta finantziarioa lotu behar dira obraren kronogramak aurrera egiten duen bitartean, modu paraleloan.

-Lan-dokumentuan proposatutakoak, aldaketak aldaketa, lanean hasteko oinarri nahikoa dira

Azkenik, Gorka Urtaran alkatea uztailean egindako Euskara Elkargunean, lantaldearen lana amaitu ondoren, proposamen zehatz bat egitearen konpromisoa hartu zuela gogorarazten da.

Prusilla jaunak adierazi du udal gobernua lantaldearen emaitzak aztertzen ari dela eta egindako proposamenei epe laburrean erantzuna emango zaiela.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Amelia, plantea dudas sobre el lugar donde se va a construir el Kafe Antzokia: “¿Por qué el Ayuntamiento pide un informe a la Fundación Catedral? ¿Qué va a pasar con el patio con el nuevo edificio? ¿Se va a tirar el frontón de piedra? ¿Por qué no se hace en Villa Suso o en el Palacio Zulueta? “

Prusilla afirma que algunas de las informaciones de Amelia son erróneas:

- El frontón no se va a tocar y el patrimonio se va a respetar e integrar en el nuevo edificio.
- El patio se va a tener que utilizar íntegramente para el Kafe Antzokia.
- El Ayuntamiento forma parte del Patronato de la Fundación Catedral y se encargó el estudio a esta fundación porque conocen el casco medieval y se podía asumir con el dinero que se aporta.
- A lo largo del proceso se han rechazado las ubicaciones de Villa Suso, Echaury, Palacio Zulueta, Jardines de Falerina y Depósito de aguas porque no reunían los requisitos.

Amelia pregunta sobre a quién se puede acudir para paralizar el proyecto. Se le recomienda acudir al Síndico.

Iñaki (Lazarraga) gasteiztarrek proiektu honen inguruko informazio gutxi daukatela aipatzen du. Beraren ustez, proiektuaren egoeraren berri eman behar da.

Kaiet, de Orhum Zinekluba, asegura que hay un informe que demuestra que el Kafe Antzokia no va a dar servicio a toda la ciudadanía y recuerda al concejal las repercusiones que, según él, podría suponer votar a favor del Kafe Antzokia para cualquier político. También pregunta sobre la exposición pública del concurso de ideas que el alcalde había mencionado en el último Elkargune. Además, solicita un documento jurídico con los pros y contras de las diferentes formas jurídicas de gestión y propone una federación de asociaciones. Por último, exige no dar ningún paso más hasta que el estudio arqueológico esté concluido.

Prusilla informa que finalmente no se ha hecho la exposición pública del concurso de ideas ya que el proyecto ha avanzado y ya no tenía sentido volver a proyectos que no contemplan las últimas decisiones sobre el Kafe Antzokia, como la de mantener el frontón.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Además, asegura que la figura jurídica que gestione el proyecto no será decisión del Elkargune.

Gorkak (AEK) ez du federazio batean parte hartu nahi, GKE-OEEren kudeaketa egiteko. Beraren ustez, Lazarragari elkargunearen babesza eman zaio eta ez da erabakita dauden gatazketara bueltatu behar.

Elkargunearen ordezkariak hitza hartu eta Kaieti jarreraz aldatzeko eskatu dio, betiko gaiak behin eta berriz eztabaidatu nahi ditu eta, Elkargunearen funtzionamendua oztopatuz. Horrez gain, beste elkarte guztiei ere hitz egiteko aukera eman behar zaiela azpimarratzen da.

4- Vitoria-gasteiz.eus domeinuaren gaineko informazioa.

.EUS domeinua aspalditik plazaratu zen eta Gasteizko Udalak oraindik ez du erabiltzen, Prusilla Jaunak hirugarren pertsona batek erosi duela domeinua azaltzen du. (www.vitoria-gasteiz.eus).

Udal Administrazioaren sailetik PuntuEus Fundazioarekin harremanetan jarri dira irtenbideak hausnartzeko. PuntuEus Fundazioa kasua aztertzen ari da, beraiantzat ere lehentasunezko kontu bat baita. Prusillaren hitzetan Fundazioak egin behar ditu tramiteak, domeinua berreskuratu eta gero Gasteizko Udalari emateko.

Elkargunearen ordezkariaren ustez prozedura ez da hain zaila, 2 hilabeteko epean domeinua berreskuratu daiteke eta. Horretarako OMPIren (Jabetza Intelektualaren Erakundea) web orrialdean agertzen den prozedura jarraitu baino ez da egin behar.

Vitoria-Gasteiz. Euskadiko .eus domeinurik gabeko hiriburu bakarra dela gogorarazten da.

5- Beste

GEU elkarteak Euskaraldiaren inguruko planifikazioaren zertzeladak eman ditu.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Oraingoz talde motoreak hartu du Euskaraldiaren ardura, baina 2018ko lehen hiruhilabetean batzordeak osatuko dira, aurkezpen bilera eta aurkezpen publikoen bitartez jendea erakarriz. Plangintza bat lantzen ari da, Gasteizen jorratu nahi dena. Horretarako, mugarri batzuk jarri dira, oso epe luzeko ekimena izango baita. Geu Elkartek Udalaren papera zein izango den galdetzen du. Elkartearen ustez, Gasteizek argitu behar du Euskaraldiarekin bat egingo duen ala ez.

Prusilla Jaunak planteamendua ofizialki egin behar dela adierazten du, finantzazio bideak aztertu ahal izateko.

GEU Elkartearen ustez egitasmoak espazio erreferentzial bat behar du, eta Oihaneder Euskeraren Etxea horretarako egokia izan daiteke (Bertako espazio bat jendaurreko bulego bihurtu, bilerak hor egin, gune fisiko bat izan informazio jasotzeko...). Elkartearen ustez Udalak lehentasuna eman behar dio Euskaraldiari.

Talde motorea urtarrilaren 16an elkartuko da, eta horren ostean plangintza zehaztuko da.

En otro orden de temas, Kaiet denuncia que el ascensor de Oihaneder Etxea da las instrucciones primero en castellano y luego en euskera, no cumpliendo lo establecido por el Ayuntamiento. Se pide al Ayuntamiento revisar todos los ascensores de la red municipal y pedir a la empresa mantenedora que lo corrija